

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5046

EBAZPENA, 2015eko azaroaren 6koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen den 2015-2017 aldirako Euskal Kultura Ondarea babestu eta zaintzeko deitutako laguntzen Balorazio Batzordearen partaideen izendapena.

Aztertuta geratu da, 2015-2017 aldiari dagokionez, Euskal Kultura Ondarea babestu eta zaintzeko diru-laguntzetarako deialdia egiten duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko urriaren 1eko Agindua.

Agindu horretako 15. artikulua dioenez, Balorazio Batzordearen osaera Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez jakinaraziko da.

Ondorioz, hauxe,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen osaera jakinaraztea. Hona hemen kideak:

Lehendakaria:

– Imanol Agote Alberro jauna, Kultura Ondarearen zuzendaria.

Bokalak:

– M.^a José Arostegi Irastorza andrea, Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren arduraduna.

– M.^a Goretti Fariñas Egaña andrea, Kultura Ondarearen teknikoa.

– Armando Llamosas Rubio, Kultura Ondarearen teknikoa, epaimahaiko idazkari izango dena.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 6a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.